

Oriako marinelak

21 batel ariko dira bihar sailkapen estropadetan ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-06-17 ▶ IV. urtea ▶ 914. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

JON GOIKOETXEA, UNAI AIZPURU ETA MANU JOUBERT ▶ MENDIZALEAK

«Espedizio honetan, alderik itsusiena ikusi diogu mendiari»

TOLOSALDEA ▶ Shisha Pangma (8.027m.) gailurra egin gabe itzuli behar izan dute eskualdekoek, eguraldi txarratik edota osasun arazoak direla eta ▶ 6




Beste mendizaleekin batera espedizioak ateratako argazkia (Unai Aizpuru, erdian, Ibarra zapia eskuetan duela; haren eskuinekoa da Jon Goikoetxea *Boli*). HITZA

JABI OTEIZA ▶ PILOTARIA

«Honaino iritsi naizela, orain aukerari heldu behar diot»

Aurrera-Saiazekoak gaur debutatuko du profesionaletan ▶ 5



Jabi Oteiza. L. MONTES

ZIZURKIL ▶

Eskualdeko hiru segalari Gipuzkoako bigarren kanporaketan

Mikel Aranalde gazteluarra, Andoni Dorronsoro ikaztegiarra eta Mikel Alkorta asteasuarra ariko dira gaur ▶ 4

LEITZA ▶

Gazteen finala du bihar Urrutiak

Urrezko Harri-jasotzaileko Berria mailan lehiatuko da ▶ 7

TOLOSA ▶

Gerontologiko berriaren proiektuaz

Udalak, Plataformak eta Tolosa Bizirik-ek balantzea egin dute ▶ 3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ **egunero** 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ **uneoro** informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste



egunean 0,18 zentimoren truke etxean

LANBATA 17

IBARRAKO GAZTE FESTAK'06

16:30 MUS TXAPELKETA
17:00 MASEL MAGOA PLAZAN
18:30 ALURR DANTZA TALDEA
19:30 BERTSO POTEOA
23:00 DRINDOTS^{EKIN} DANTZALDIA

SANJOANAK ▶

Atarian, kirolak... eta beste

Bihar, batel estropadak izango dira ekitaldi nagusia; gaur, besteak beste, 3x3 eta Europako Abesbatzen Sari Nagusia



Jende andana bildu ohi da batel estropadak ikusteko; argazkian, iazko San Joan jaietakoak. HITZA

tzen Sari Nagusiarekin. Sagardozaleek ere hitzordua dute 19:00etatik aurrera Berdura plazan, bertan lehiaketa izango baita. Eta zezenketak ere izango dira, 18:00etatik aurrera, Tolosako zezen-plazan, Iker Lara, Sanchez Vara eta Denis Lore toretzaileekin.

Eta, ezbairekin gabe, guztietan nagusia azken urteetan berreskuratutako usadioa, batel estropadak, hain zuzen. Bihar Oria ibaiko uretan lehiatuko dira batel estropaden lehen sailkapenak, 12:00etatik aurrera. Guztira, bost txanda irtingo dira. Guztiek erlojuaren kontra buelta bat egingo dute, bi ziaboga, alegia. Nesketan lau denbora onenak egiten dituztenak sailkatuko dira eta, mutiletan, sei denbora onenak. Sailkatuek astebete berandua, Koadrilen Egunean, jokatu dute finala, 12:00etatik aurrera. Guztira, 21 batel ariko dira, iaz baino 4 gehiago, gero eta ikusmin handiagoa pizten baitute estropadek.

NOELIA LATABURU

Gero eta gutxiago geratzen zaie tolosarrei, Andre Maria plazan, San Joan suaren inguruan biltzeko. Eta eguna heldu bitartean, ekitaldiek ez dute etenik izango gurean. Hala, gaur eta bihar artean egitarau zabala prestatu dute, zeinean kirola nagusi izango den, besteak beste, kale saskibaloia VII. San Joan Saria, San Joan Pilota Txapelketa, XV. San Joan Zestapunta Txapelketa, eta igeriketako XXXVIII. San Joan Saria. Asier Bakaikoa Kirol teknikariak azaldu zuenez, helburua «kirolarekin jendea kalera ateratzea» izango da; 18.200 euroko aurrekontua izan du Kirol sailak guztia antolatzeko.

Kulturak ere badu bere tartea, gaurkoan, 17:00etan, Usabalen, 18. Europako Abesba-

5 TXANDA ▶ 21 BATEL

1. TXANDA (NESKAK)

AKE Izaskun-66 taberna. Garazi Egiguren, Ioana Alijostes, Ainhoa Lopetegui, Marijo Salsamendi, Irati Larrañaga.
Laier taberna. Nerea Elustondo, Izaro Zubiria, Maitane Garmendia, Maialen Azaldegi, Naiara Gorostiaga.
TAK A infantil-kadete. Izaro Ezeiza, Lorena Colomo, Irati Ozaita, Maitane Olano, Myriam Garmendia.
TAK B infantil-kadete. Irati Ozaita, Maite Amondarain, Myriam Mujika, Maitane Mendizabal, Ariane Bujanda.

2. TXANDA (MUTILAK)

Hirukide. Aitor Aranburu, Jon Alonso, Mikel Garmendia, Imanol Carrera, Andoni Tena.
Climaxvic. Maximo Aranburu, Aitor Elduaen, Joseba Rojo, Erlantz Gonzalez, Fernando Rojo.
TAK kadete. Igor Beitia, Ugaitz Mendizabal, Ion Malbadi,

Eneko Gonzalez, Endika Lopez.
TAK A infantil. Ion Gago, Marko Alijostes, Julen Gorostiaga, Beñat Larrauri, Markox Gaztañaga.

3. TXANDA (MUTILAK)

Ortzadar (Arco-Iris). Maikel De Dios, Mikel Belaunzarán, Garikoitz Etxeberria, Iñaki Nazabal, Imanol Etxeberria.
Emendek. Kepa Dorronsoro, Unai Iraola, Jorge Beloki, Mikel Morea, Arkaitz Arteaga.
Gaztelu-Ibarra B. Izaro Zubiria, Beñat Zubiria, Axier Lopetegui, Ibai Ibarzabal, Iñaki Esnaola.
K-2. Ibon Carrera, Juan Orbegozo, Iñaki Kerejeta, Iban Etxeberria, Alberto Diaz.

4. TXANDA (MUTILAK)

Gaztelu-Ibarra 'A'. Ion Gago, Haritz Izagirre, Eneko Martin, Iñigo Jauregi, Ion Ander Agirre.
AKE Izaskun-Orbela taberna. Ugaitz Mendizabal, Jose Javier

Tardio, Migel Fresneda, Jose Luis Lopez, Jose Luis Perez.
Txinparta. Yashira Navas, Xabier Orkaiztegi, Unai Perea, Beñat Goenaga, Iñigo Fernandez.
Urbegi Oria. Julen Gorostiaga, Sergio Sorrosal, Kevin Lertxundi, Eimar Uberatagoena, Ander Alvarez.
TAK B infantil. Mario Monilla, Iñigo Irazu, Ion Arretxe, Julen Irisarri, Ander Garmendia.

5. TXANDA (NESKAK)

Ibarra. Irati Ozaita, Itziar Saizar, Oihana Lopetegui, Amaia Doyague, Laida Etxedona.
Ttanto. Izaro Ezeiza, Myriam Elorza, Elisabet Gurrutxaga, Izarne Garmendia, Maria Navas.
Goierriarra. Maria Litago, Lorea Sanchez, Maialen Arrieta, Oihane Garmendia, Haizea Tapia.
Hirukide. Leire San Sebastian, Maddalen Agirre, Olatz Ortiz, Nahikari Alonso, Izaskun Peñagarikano.



Sari Nagusiko abesbatzei ongietorria, Foru Aldundian

Erredakzioa ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak gaur Usabalen Abesbatzen Europako Sari Nagusian parte hartuko duten taldeei harrera egin zien atzo. Hala, Foru Administrazioaren Kalitaterrako foru diputatu Peru Bazako eta Kulturako zuzendari nagusi Imanol Agotek ongietorria eman zieten taldeei, bai eta Tours (Frantzia), Gorizia eta Arezzo (Italia), Varna (Bulgaria), Debrecen (Hungaria) eta Tolosako alkate eta ordezkariak ere. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Eskaintza magikoak Citroën-en

Citroën C4 12.000 €
Ez gaituen C4 Collection Peak 14.200 €
 Citroën C1 8.100 €
 Citroën C2 8.700 €
 Citroën C3 9.000 €
 Citroën C3 12.200 €

Hil honetan aurkitu prezio apartak:

Citroën C3 17.300 €
Ez gaituen C3 180 Collection 19.200 €
 Citroën C3 9.000 €
Ez gaituen C3 Collection 12.200 €

IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITROËN

KULTURA ▶

Ez aspertzeko egitaraua, bihar, Pako Egunean

E. EZEIZA

Urtero bezala, Udal Gazteria Sailak antolatuta, Pako Eguna egingo dute bihar. Goiz guztian zehar, jai giroan hainbat ekitaldi izango dira Santa Maria plazan.

10:30ean hasita, esgrima eta haurrentzako tailerrak prestatu dituzte. Ondoren, 11:30ean, indarrak berritzeko hamaiketako izango dute. Jarraian, berriz, gerria mugitzeko, Batuka. Bestalde, Pako Egunaren barne, Veleta Elkarteak antolatuta, Tolosako Adiskideok Kirol Elkartearen laguntzarekin, 3x3 kale saskibaloitxo txapelketa jokatu da bihar. Norgehiagokak San Frantzisko pasealekuan burutuko dira egun osoan zehar. Hala, goizean gazte-oxoak ariko dira, eta arratsaldean nagusiak.

TELEFONOAK ▶
**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Iruera.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroizko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

GERONTOLOGIKOA ▶

Proiektu berria hizpide

Duela aste batzuk Udak Gerontologiko berri baten aurreproiektua aurkeztu zuen, eta HITZAK honen inguruko alderdi ezberdinen balantzeak bildu ditu

ESTI EZEIZA

Gerontologikoa hizpide izan da azken egunotan, honen inguruko hainbat gertaera eman baitira azken asteetan. Horren adibide, maiatzaren 27an egindako manifestazioa, eta orain dela aste batzuk Udak proposatutako aurreproiektua. Hala, eta egitasmo hau aurkezteko asmoz, Udaleko ordezkariak eta plataformako kideek bilera bat egin zuten orain dela egun batzuk. HITZAK alde ezberdin hauen esanak jaso ditu, eta denei balantze bat egiteko eskatu die.

Tolosako Udala. Orain dela bi aste inguru egindako bileran, Udak ordezkariak Gerontologikoaren aurreproiektuaren berri eman zieten Gerontologikoaren aldeko plataformari koei. Hala, Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, «lan bilera bat izan zen, aurreproiektua azalduz». Eta orain arteko irizpideari jarraituz, diskrezioz lan egiten jarraituko dutela gaineratu zuen.

Bestalde, Udak proiektuarekin lanean diharduela ziurtatu zuen, eta proposamen ezberdinak aztertzen ari direla. Alkatearen esanetan, proiektu honetan protagonista eta agente ezberdinek hartzen dute parte, eta plataforma, Al-dundiarekin eta Arau Subsidiarioekin batera, horietako bat da.

Horregatik, orain burutzen ari diren gestio lanetan, Udaleko alderdi politikoak dira nagusi. Hala ere, gainontzeko par-



Inguru hauetan joango litzateke Gerontologiko berria. E. EZEIZA

Manifestazioaren berri

Gerontologikoaren aldeko plataformak maiatzaren 27ko manifestazioaren balorazioa egin du. Honen harira, «poza» adierazi nahi dute, eta aldi berean, «eskerrak eman Tolosako eskualdeko elkarte, sindikatu, hainbat alderdi eta herritarrei, emandako babesa eta izandako parte-hartze jendetsuagatik».

Bestetik, hau baino lehenago, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udaleko ordezkariak «egindako azpijokoarengatik», larunbat hartako ekintzei

taideekin elkarriketetan ari direla adierazi dute, eta «hauengan ahalik eta zentzu baikorrena bilatzen» saiatuko dira. Nolanahi ere, proiektua aurrena doala berretsi dio Hitzari Jokin Bildarratz alkateak.

balioa gehitu zitzaion. Beraz, «arrakasta» honen ondoren, plataformak argi dauka lanean jarraitu beharra daukatela, «adostasunik eza azaltzea ez baita nahikoa».

Tolosa Bizirik herri ekimenak ere balorazio ona egin du maiatzaren 27ko egitasmoa. Eta herritarrek ongi erantzun zutela dio, nahiz eta hiru egun lehenago EAJk Gerontologiko berriaren kokapenerako proposamena egin, «agian, manifestazio deialdiaren arrakasta itzali nahian».

Gerontologikoaren Aldeko Plataforma. Gerontologikoaren Aldeko Plataformakoei esanetan, «Tolosako Udaleko ordezkariak aurkeztutako aurreproiektuak are ageriagoan utzi du arrazoia genuela eta

Gerontologikoaren itxiera bar-kaezina den hanka sartzea dela». Bilerak honek plataformakoei zituzten zalantzak argitzeko balio izan zutela adierazi zuten, hau da, «proiektua oraindik oso berdea dagoela: batetik, oso epe luzearako irtenbide posible bat izan daitekeela; bestetik, finantziari buruz ere ezer argirik ez dagoelako».

Bestalde, «asko kezkatu ginen, itxaron zerrendak luzatuko dituzten familien egoerari buruz ez zutelako hitz egin nahi izan».

Tolosa Bizirik herri ekimena.

Tolosa Bizirik-en ustetan, «harrigarria da. Orain urte eta erdi Gipuzkoako Aldundian ardura duen alderdi berak Euskal Herria plazako Gerontologikoa itxi zuen, Tolosaldean plaza beharrik ez zegoela eta gestioa garestiegia gertatzen zela argudiatuz. Orduan, Tolosako PNVeK ez zuen ezer handirik egin erabaki haren aurka, eta orain gabezi hori dagoela aitortu dute». Ezker abertzalekoak seguru daude herritarrek emandako 4.000 sinadurek eta urte eta erdi honetan egin diren manifestazioek «behartuta onartu» dutela akats hau. «Edo, beharbada, bakarrik gertatu izanak eta boto-emaleengandik jaso zezakeen zigor politikoak beldurtu ditu». Eta Tolosa Bizirik-ekoan ustez «PNV, nahiz eta hauteskundeak arte itxaron nahi zuen, orain behartuta sentitu da, eta egitasmoa aurkeztu egin behar izan du».

iragarki laburrak ▶
LANPOSTUAK

Langileak. Bergaran, Hernanin eta Errenterian honako lanpostuak bete behar dituzte: mantenimenduko peoiak, garbitzaileak, askotariko zerbitzuak, lorezainak. 943 31 37 82.

Mantenimendua. Igeltseroak, arotzak, elektrikariak, gidariak. Udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

Haur hezitzaileak. Plaza finkoak betetzeko lanpostuak libre. Informazioa doan, 943 31 37 82 telefonoan.

Harreragileak, telefonistak. Plazak libre. Eskola Agiria dutenetik aurrera. 943 31 37 82.

Agiritxerietako laguntzaileak.

Arrasate, Bergara, Donostia, Sorraluze eta Igorrerako behar dira. 943 31 37 82.

Osakidetza. Plazak libre: teknikariak, laborategiko laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan., 943 31 37 82 telefonoan.

Sukaldariak. Erieteetako jatebeetarako behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gidariak, txoferak. Plaza libreak betetzeko hurrengo deialdiarako. 1.800 euro hileko. 943 31 37 82.

Peoiak. Lorezainak, elektrikariak, iturginak, langileak, kontserjeak, udaletarako gidariak. 943 31 37 82.

Beti nahi jatekoa

Garaian garaiko janariak Arraikiatan berezita

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

iragarki laburrak ▶
SALGAI

Pisua. Leitza 100m2ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Deitu 699 46 13 65 telefonora.

Etxebizitza. Etxebizitza salgai, Berrobin. 29 milioi eta erdi, negoziagarria. 618 83 32 56.

LANA

Neska. Udan lana egiteko neska

eskaintzen da. Deitu 660 78 42 37 telefonora.

Sukaldari laguntzailea. Amasan, sukaldari laguntzailea behar da asteburuetarako. 943 69 12 10.

OPARITZEKO

Txakurkumea. Txakurkumeak (arratoi txakurak) oparitzen dira. Interesatuak deitu 618 25 49 71 telefonora.

PILOTA ▶

Tolosaldeko Esku Pilotako III. Topaketaren finalak, gaur

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Esku Pilotako III. Topaketei amaiera emango diete gaur arratsaldean, Beotibarren. 16:00etan ekingo diete ondorengo partidei: aurrebenjaminetan, Amezketako Amondarain-Zubeldia eta Alegiko Altuna-Irazustabarrena; benjaminetan, Villabonako Alkorta-Maiz eta Berastegiko Salba-derri-Garciarena; alebinetan, Alegiko Murua-Artola eta Anoetako Ibarzabal-Tolosa; infantiletan, Anoetako Urbietta-Aristimuño eta Ikaztegiatiko Urretabizkaia-Maiz; kadetetan, Asteasuko Urbietta-Urruzola eta Andoaingo Jauregi-Beloki; jubeniletan, Altzoko Alonso-Olano eta Amezketako Martinez-Garmendia; senioretan, Amezketako Martinez eta Villabonako Lizaso.

ZIZURKIL ▶

'Aupa Etxebeste' filma ikusteko aukera, gaur

ERREDAKZIOA

Zizurkil Goiko San Millan Elizako frontoi txikian *Aupa Etxebeste* filma ikusteko aukera izango dute gaur bertara azaltzen direnek. 22:30ean hasiko da emanaldia.

ANOETA ▶ JAIK



Euriak ezin izan du eten herritarren jai giroako gogoia

I. Garcia ▶ Gonbidatuta ez bazegoen ere, atzo arratsaldean euria agertu zen Anoetako jaietara. Baina ez zuen eten herritarren jai giroako gogoia. Plazan egin beharrean, play-back jaialdia frontoian egin zuten, jende ugariaren presentzian. Sagardo dastaketa, berriz, txosnaguneko karpapean egin behar izan zuten. Gaurko, Udalak antolatutako egitarauan, nabarmentzekoa da Gorritiren Festibala

goizean, Mus Txapelketa, haurrentzako *Sanbhu* ikuskizuna eta Tolosaldeko Bakailoa Saltsa Berdean Txapelketa arratsaldean, eta herri afaria eta kontzertuak gauean. Herri Borondatearen Aldeko Jaietan Gazteen Eguna izango da gaurkoa. Arratsaldeko kalejiraren ondoren, herri afaria egingo dute eta gero gazteen dantza emanaldia. I. GARCIA

SEGA ▶

Tolosaldeko hiruren artekoa, Gipuzkoako bigarren kanporaketa

Mikel Aranalde gazteluarra, Mikel Alkorta asteasuarra eta Andoni Dorronsoro ikaztegiatarra lehian, bihar, Zizurkilen

IMANOL GARCIA

Zizurkil Goiko Zaldu Azpiko baserriaren zelaietan jokatu da bihar Gipuzkoako Segatxapelketaren bigarren kanporaketa. Hiru segalariak eskualdekoak dira: Mikel Aranalde gazteluarra, Andoni Dorronsoro ikaztegiatarra eta Mikel Alkorta asteasuarra. 30 minutuko

lana egin beharko dute parte-hartzaileek, 18:00etan hasiko den saioan.

Mikel Aranalde da hiruretatik txapelketan aurrera egiteko faboritua. Hamargarren aldian izango da parte hartzen duela Gipuzkoako Txapelketan. Lazkoan hirugarren izan zen, eta aurten «postu hori hobetzea» du helburu. Dorronsoro ezagutzen du, baina Alkorta ez, aurreko aldiz parte hartuko baitu asteasuarra. Aranalde ez du gustuko ordu erdian bakarrik aritzea: «Nahiago dut ordubeteko saioa. Ordu erdian aritzea arriskutsua izan daiteke. Gauza asko ditu segak eta

zerbait okertzen bada, gero hori berreskuratzea zaila da».

Bigarren aldiz lehiatuko da Andoni Dorronsoro. Ikaztegiatarrak ere ez du Alkortaren berririk. Gutxi entrenatzeko aukera izan omen du: «Arraunetan ere ibili naiz zerbait eta gero hori utzi egin nuen». Horregatik, ez daki zer emaitza lortuko duen: «Han ikusi beharko da ea nolako eguna ateratzen den».

Horrelako txapelketa batean estreinaldia izango da Mikel Alkortarentzat. Asteasuarra Xiba herri kirol probetan aritu da eta lagunek animatu zuten Gipuzkoako parte hartzerara.

«Esperantza handirik ez dut. Mundu berri xamarra da niretzat», dio. Gustuko du ordu erdiko proba izatea, «ordubeteko gehiegi ikusten dut niretzat». Entrenamenduak «politik» izan direla azaldu du, eta bihar ahal duena egitera aterako dela dio: «Ez daukat inongo presiorik».

Lau finalistak, eskualdekoak

Aurreko kanporaketan Andoni Zuriarrain amasarra eta Joxe Gabirondo gazteluarra sailkatu ziren finalerako. Beraz, lau finalistak Tolosaldekoak izango dira. Finala hilaren 25ean jokatu dute, Oiarzungo Pikotekanan. Saio horretan ordubetetz aritu beharko dute segalariak.

Bestalde, gaur Euskal Herriko Segatxapelketaren lehen kanporaketa egingo da Gasteizen, Zuazo de Vitorian. Bertan parte hartuko du Andoni Zuriarrainek. Hurrengo kanporaketan (Larritx, uztailak 8) Mikel Aranalde eta Joxe Gabirondok hartuko dute parte, eta azkenekoan (Azkarate, Nafarroa, uztailak 9) Andoni Goikotxek gazteluarra eta Mikel Alkortak hartuko dute parte.

ondo para jaietan!

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

EUSKAL TONBOLA

Euro baten truke alako orri!

Tuortakak ongi jolatu eta ongi tobernatu

1€

Bridge

UDAKO IKASTAROAK
UZTAILA 2006

Haur, gazte eta helduentzat

FRANTSESA & INGELESA

FIRST eta ADVANCED

azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak

Talde txikietan • Orduetara taldeen arabera

Pablo Gorosabel 2 - 1A • 20400 Tolosa
943 65 00 70 • 680 222 526
www.bridge2005.com • bridge2005@bridge2005.com

ARAMBURU

Alkatze. Salueta apartamentua 2 gelak eta haize egokituarekin

Alkatze.
Pisuak. Tolosan, Anoetan eta Lasarren.

Alkatze.
Garajeak, Baxiller Zaldibian, irekiak eta itxiak.

Alkatze.
Lokalak. Fueros eta Laskorain kalean, Salgai (Tolosa), Pisu Belate kalean, 75 m², Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17, 140 m², Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain kalean, 5.-a, Salgai (Tolosa), Pisu Laramendi kalean, 112 m², Igoailuarekin.

Salgai (Garajeak). Tolosako Leidorren eta Ibarren, karabana sartzeko moduko garajea, Salgai (Lokalak), Tolosan Kale Nagusian.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

JABI OTEIZA ▶ PILOTARIA

«Ez naiz serio jarri pentsatzen enpresarekiko loturan; berdin segiko dut»

Aurrera-Saiaz eskolan eman ditu azken bi urteak; gaur debutatuko du profesionaletan

ERREDAKZIOA

Jabi Oteiza, Zarauzko 23 urteko pilotariak, gaur debutatuko du profesionaletan jaioterriko Aritzbatalde frontoian, 17:00-etan. Beotibarren entrenatzen du, Aurrera-Saiaz pilota eskolako baita. Eta iaz HITZA Pilota Txapelketa irabazi zuen, Bellosoarekin. Bere lan bikainarengatik, pilota eskolak zorionik

beroenak luzatu nahi dizkio pilotari gazteari.

Gaur, handienekin batera jokatuko duzu. Urduri?

Bai, pixka bat bai, aguantatu egin beharko dut. Unea iristen denean gorputzari gogor egin, eta kontrolatu beharko naiz. Asteartean Tolosako Beotibarren entrenatu genuen eta, nire ustez, ondo prestatuta goaz partidara.

Asegarcen sartzeak zer suposatuko du?

Ez naiz serio jarri pentsatzen enpresarekiko loturan, normaltasunez emango dudala pentsatzen dut, eta ez duela nire bizitza aldatuko egun batetik bestera.

Olaizola II.a-Oteiza, Unanue-Peñagarikano. Zu maila gorenean.

Maila hobe dela igertzen da,

erritmoa azkarragoa, materiala ere ezberdina, erregularrago dira pilotariak, peloteo luzeagoa egiten dute eta zentzu guztietan zorrotzagoak dira. Ustez, partida gogorra izango da, nire maila baino aurkari hobeak jarri dizkidatelako.

Halakorik espero al zenuen?

Beti espero duzun zerbait da, txikitatik neukan gogoia maila honetara iristeko, eta orain au-



N. U.

kerari heldu behar diot. Animatuta nago.

Gustura Aurrera Saiazen?

Bai. Bi urte pasatxo egin ditut, eta oso gustura egon naiz. ◀

TXARAMA ▶ EKONOMIA

Indemnizazioa eskatu dute Araxes lantegiko 34 langileek

Hilabate igaro da dagoeneko ekoizpena eten zutenetik

NEREA URBIZU

Ezjakintasuna da nagusi Araxes paper-lantegiko langileen-gan. Duela ia hilabete bat lantegian ez dago produkziarik, eta 34 langile lanik gabe geratu dira.

Azalpenak lortzeko ere «zaila» dute, «Rekalde nagusiak alde egin baitu». «Egoera larria da», LAB sindikatuko delegatu Joxe Antonio Olariagaren esanetan. «Gurea dena besterik ez dugu eskatzen, indemnizazioa, azalpen bat, ardura hartu behar duenak har dezala», azaldu dio HITZARI.

Araxes paper-fabrika berriro martxan 1997an jarri zuten, hiru urtez itxita egon ondoren.



Araxes paper-fabrikak laster hilabete egingo du ibxita. N. U.

2005eko apirilko ostiral batean, «langileekin kontatu gabe», nagusiz aldatu behar zutela esan zuten nagusiek, eta astelehenean berriak etorri ziren, Rekalde anaiak, alegia. «Susmagarria izan zen bat-bateko aldaketa hori. Hasieratik harremanak ez ziren onak

izan». Maiatzaren 20ean produkzio arduradunak «susmo txarra» hartu zion egoerari, modu ez ohikoan fabrika gelditzeko eskatu baitzitoten.

Langileak eguneroko doaz lantegira, nahiz eta lanik ez egin. «Ardurak eta gurea dena besterik ez dugu eskatzen», diote.

ALEGIA ▶ HEZKUNTZA



Helduei errespetua erakutsiz

N. Urbizu ▶ Alegiako zaharsaridunen egoitzan egindako emaldia izan zen, atzo, 11:30ean. San Joan eskolako Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak izan ziren protagonistak. Gustu handiz herriko jubilatuei eskolan prestatutako dantzak eta kantuak eskaini zituzten. 4 urteko umetxoek trapua buruan jantzita beraien emaldia egoki burutu zuten. HITZA

GRUPO GEM TALDEA

g.aula@chermex.es
hyundai@mendaule.com

Giuto OPEL
902 345 123
ELGOIBAR EBAR BERGARA
ARRASATE OLABERRIA ANOETA
www.opel.es

Giuto CHEVROLET
902 345 225
EBAR OLABERRIA
www.chevrolet.es

Giuto SAAB
943 763 346
BERGARA
www.saab.es

mendaule HYUNDAI
902 345 335
ELGOIBAR DONOSTIA IRUN
LASARTE ARRASATE TOLOSA BEASAIN
www.hyundai.es

ONDO PASA JAIK

JON GOIKOETXEA, UNAI AIZPURU ETA MANU JOUBERT ▶ MENDIZALEAK

«Espedizio honetan, alde itsusiena ikusi diogu mendiari»

Eguraldi txarragatik edota osasun arazoak direla eta, eskualdeko hiru mendizaleek Shisha Pangma gailurra egin gabe bueltatu beharra izan dute

IÑIGO TERRADILLOS

Manu Joubert alegiarrak eta Jon Goikoetxea *Boli* eta Unai Aizpuru ibartarrek Shisha Pangma helburu zuen espedizioari ekin zioten iragan apirillean; hainbat ezbehar tarteko, 8.027 metroko gailurra egin gabe bueltatu beharra izan dute. Helburua bete ez arren esperientzia polita izan dela azaldu diote hiru mendizaleek Hitzari.

Osasun arazoak direla, edota eguraldi txarrak behartuta, gailurrik gabe bueltatu beharra izan duzue.

Jon Goikoetxea. Lehendabiziko egunetan, ohikoa den moduan, oinarritzko kanpamentua eta prestatzen egon ginen. Pixkanaka, ordea, espedizioa osatzen genuen mendizaleen taldea erortzen joan zen.

Unai Aizpuru. Nire kasuan, esaterako, altuerak zuzenean eragin ninduen. 6.000 metrotik gora neure burua gaizki sentitzen hasi nintzen, gorputza nekatua nuen, eta egunetik egunera neke hori areagotzen zihoan eta ez nintzen osatzen. Gainera, halako batean sudu-

Manu Joubert alegiarrak eta Jon Goikoetxea *Boli* eta Unai Aizpuru ibartarrek. I. TERRADILLOS

rretik odola botatzen hasi nintzen denbora luzez eta behera jaitea gomendatu zidaten. Nengoen moduan neure burua ez nuen tontorra egiteko gai ikusten, eta behera jaitea erabaki nuen. Behera jaitsi orduko hobekuntza nabaritzen hasi nintzen; beraz, argi dago altuerarena nire gorputzak ez zuela ondo asimilatu.

Manu Joubert. Lehenengo kanpamentuan bi gau igaro ostean bigarrenera nihoanean gertatu zitzaidan niri. Pisu dezenterekin goruntz egin nuen eta bat-batean ekaitzak harra-

patu ninduen. Horren ondorioz, eskua izoztu eta hatz bat moretuta geratu zitzaidan. Orduan, aurrera jarraitu beharrean beherantz egin nuen. Oinarritzko kanpamentuan nengoela ohartarazi ninduten izozturik zegoela hatza, eta geldi egonez gero galtzeko arriskua bazegoela. Beraz, bertan bi egun igaro, eta behera jaisteari ekin nion. Horrela amaitu zen niretzat espedizioa.

Geratu zinetenok izan zenuen gailurra egiteko aukera.

Goikoetxea. Lau mendizale geratu ginen eta bi saiakera egin genituen. Maiatzaren hasieran izan zen lehendabizikoa, eta hain zuzen ere, 6an gailurra egiteko asmoz ekin genion. Egun horretan eguraldi ona egin zuen, baina eguraldia baino bidearekin izan genituen arazoak. Izan ere, bidea zein

zen segurtasun osoz jakin gabe hasi ginen igotzen, bidea oso agerikoa izango zela uste baikenuen. Baina, ez zen horrela izan, eta beste korridore bat hartu genuen nahastuta. Ondorioz, galdu egin ginen eta ordu ugari pasatu genituen aristan, material gabe eta eskapada handiak eginez. Kanpamentura jaitsi ginen, gaua igaro eta hurrengo egunean beste saiakera bat egiteko asmoz. Hurrengo egunean ikusi genuen zein zen benetako korridorea, baina nekeak jota igoera beste egun baterako utzi, eta 7.200 metroetatik behera jaitsi ginen. Hurrengo saiakeran, berriz, elurtea izan zen arazoa. 3 egun egon zen elurra egiten gelditu gabe, infernu bat izan zen. Dendetatik atera ginenean, elurra gerritik gora zegoen. Alderik itsusiena ikusi diogu mendiari.

Espedizioaren hasieratik hasi zineten ezbeharrekin.

Aizpuru. Etxeratze-aginduagatik, istilu ugari izan ziren Nepalen. Dena soldaduz beterik zegoen, eta hildakoak eta zaurituak izan ziren gu egon ginen egunetan. Hala ere, joan eta gero izan zen gogorrena, beste mendizale batzuei ez baitzieten utzi hoteletik ateratzen.

Shisha Pangma zortzimilakotetan txikiena izanik errezenetarikoa ere badela diote.

Goikoetxea. Zortzimilakoa izateko oso luzea da. Txikiena da altueraz, baina desnibel hori izateko luze egiten da, eta horrek lan handia eskatzen du.

Nahikoa sufritu arren, une politak ere gordeko dituzue.

Joubert. Zailtasun horiek kenduta, gustura egon gara; espedizio bezela polita izan da.

Goikoetxea. Pena handia sentitu genuen lau mendizale soilik geratu ginenean; izan ere, taldekideekin oso ondo moldatu gara.

Aizpuru. Gure artean oso ondo konpondu gara, eta hori oso garrantzitsua da. Oso une politak igaro ditugu.

Berriro itzultzeko asmorik, edo beste zerbait duzue buruan?

Aizpuru. Niretzat lehendabiziko zortzimilakoa izan da, eta esperientzia behintzat jaso dut; hala ere, ez dut uste bueltatuko naizenik, asko sufritu baitut. Orain beste abentura mota bat dut buruan: Hegoameriketan hilabete bat bizikletan ibili eta gero seimilako bat igotzea, adibidez.

Joubert. Pena handiarekin itzuli naiz gailurra egin ez dugulako, eta gustura bueltatuko nintzateke beste saiakera bat egitera.

Goikoetxea. Nekatuta etorri naiz. Lan handia izan da, eta trukean gutxi jasotzen da. Gustu handia ere bada, eta horregatik, eskerrak eman behar dizkiegu Ibarra dendariei emandako laguntzagatik. Dena den, orain horrela pentsatu arren, uste dut ahal dudanean berriro gailurra egiten saiaturko naizela.



IBARRAKO UDALA

Ibarra gazte festetan
alaitasuna eta errespetua
nagusi!

Tel.: 943 67 11 38 • ibarra@udal.gipuzkoa.net

ELEKTRIZITATEA
Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80



UZTURPE IKASTOLA

“Dabilen herriari ez zaio

ONDORRUA ZUEN JAIAK:

Egialde, 2 • IBARRA • Tel: 943 67 12 99

Herriko plaza, 2
ANOETA
Tel: 943 651 194

ANOETA
KARROZERIAK
Benta Aldea
Industrialdea
ANOETA
Tel.: 943 65 13 08
Fax: 943 65 25 06

LEITZA ▶ KIROLAK



Urrutia, Areson jokaturako Zazpi Herrialdeetako Txapelketan. J. ASTIBIA

Urrutiak bihar jokatu du gazteen finala

Urrezko Harri-jasotzaileko Berria mailako sariaren bila doa Agirrerekin

JAIONE ASTIBIA

Berria mailan, Urrezko Harri-jasotzailea izateko aukera guztiak ditu Josexto Urrutia leitzar harri-jasotzaile gazteak. Agirre abadiñoarra lagun duela, bihar jokatu dute finala, Armentian, Eizmendi eta Telleria II.aren aurka.

Araba Euskarazen, Arabako ikastolen aldeko festan, eguerdian, 12:30etik aurrera egitekoa duten herri kirol jaialdiaren baitan jokatu dute aitatutako final hau. Horrela, bina minutuko txandak egin, hiru harrirekin egin beharko dute lan: 100 kiloko zilindro zaharrenekin, bikoteetatik kide bakarra ariko da; Urrutiaren

txanda izanen da hori. Aurkari Telleria urrietarra izanen du leitzararak. Hurrena, 100 kiloko kubikoa jaso beharko dute, hau era ahalik eta aldi gehienetan, eta kide bakarrak; Agirre ariko da honetan; beste bikoteatik, berriz, Eizmendi zarautzarra. Eta azkenik, txanda libreko saioa egokituko zaie, 100 kiloko bolarekin. Denera, kilo gehien jasotzen dituen bikotea izanen da txapeladuna.

Bestalde, biharko jaialdi horretan bertan hasiko da Urrezko Aizkolari Liga ere, eta hortxe izanen da Anjel Arrospide leaburuarra ere. Donato Larretxea eta Mikel Mindegia izanen ditu arerio lehendabiziko saio horretan.

LEITZA ▶

Erraldoiekin dantzatzeko 'desafioa' egin dute

Leitzako erraldoien konpartsan aritzeko gogoia dutenei egin diete deialdia



Leitzako erraldoiak. HITZA

J. ASTIBIA

«Leitzeko erraldoiekin dantzatu? Ezetz ausartu!». *Desafio* horixe egin dute Leitzako erraldoien konpartsa kideek.

Lau lagun dabilta *Afrikako errege-erreginak* diren Leitzako bi erraldoiekin: 50na kilo dituzten arren, alde batera eta bestera dantzatzuz, bueltakabuektaka arin-arin ibiltzen dira dantzan. «Oso arinak dira; ez da nabaritzen zamarik. Haizea dabilenean gehixeago eutsi behar zaie, baina erraz ibiltzen da», baieztatu zion HITZARI Juanjo Zabala konpartseroak: «Dantzak ikastea da eginkizuna eta horrek ez du lan askorik ematen, uztailean zehar egiten dugu eta».

«Taldea bizkortzea» dute helburu, «dantza batetik bestera atsedena hartzeko ere jende gehiago beharrezkoa baita», arrazoituz. «Besteak beste, gurasoei ere dei egiten diegu». Parte hartu nahi dutenek 678 27 76 34ra dei dezakete.

HEZKUNTZA ▶

Matrikula egiteko tenorea Musika Eskolan

Karrape Irratian jaso behar dira inprimakiak, eta hilaren azkena baino lehen entregatu

ERREDAKZIOA

Musika ikasi nahi duten Leitzako eta Aresoko biztanleek badute horretarako aukera, Aralar musika eskolan hurrengo ikasturterako matrikula epea zabalik dago eta: «Aurten aurreratu egin dugu, ikasturtea hasterako orain antolaketa-lanak eginda uzteko», azaldu zuen bertako zuendariak.

Haur tikieta, 4 urtetik hasi eta gora, adin mugarik gabe, zortzi musika-tresna jotzen ikasteko aukera eskaintzen dute Musika Eskolan: akordeoia, trikitixa, pianoa, txistua, zeharkako xirula, saxofia, gitarra eta perkusioa. Adinaren eta aukeratutako tresna eta ikastaroen arioren, asteroko eskolarduen kopurua aldakorra iza-

nik; eta, ondorioz, baita matrikula-tasak ere.

Tresnaz gain, hizkuntza musikalak ikas daiteke eta, zehaztu dutenez, «kontserbatorioan ikasteko sarrera probak prestatzeko ikasleak eskolak berak ezarritako barne prozesu baten bidez egin dugu, eskola hauetan, «abesbatza eta tresna-taldeko praktikak» egiten dituztela zehaztu dute.

Horrela, matrikula egiteko epea irekita dago hilaren 30a arte. Inprimakiak Leitzako Karrape Irratian daude eskuragarri eta, bete ondoren ere, bertan utzi behar dira, azaldu dutenez.

LEITZA ▶ KIROLAK

Plazako pilota finalerdiak bihar jokatu ditzute

Gaurko Aurreraren partidua dela-eta atzeratu ditzute; Makazagatarrek ezustekoa eman dute

J. ASTIBIA

Plazako Pilota Txapelketako final-aurreko partidak gaur beharrez bihar jokatu ditzutela jakinarazi dute antolatzaileek: «Aurrerak partidua du eta taldeko jokalaririk bat ari beharra da plazan», argitu zuten.

Horrela, bada, bihar, 19:00etatik aurrera jokatu ditzute finalerako txartelak, honako bikoteen artean. Alde batetik, A. Bengoetxea-A. Gartzia

/ I. Alduntzin-J. Sagastibeltza; bestetik, I. Aldaia-U. Olano / A. eta I. Makazaga.

Aitatu txapelketako lehendabiziko lau leku hauetan dau den bikoteetatik hirur, iazkoak berak direla, Bengoetxearen bikotea, Gartzia, berria bada ere. Makazagatarrei dagokienez, berriz, iaz laurdenetara ailegatu ziren bezala, aurtengo edizioan finalerako pauso batera daude. Lauen artean dago joko orain.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira **tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo**

urteurrena ▶

Juan Antonio Apaolaza Goia
I. Urteurrena

2005eko ekainaren 16an hil zen, 74 urte zituela.



Bere emaztea: Nikolas Estensoro; seme-alabak: Juan Mari, Axun eta Juanjo Aranguren; biloba: Irati; anai-arrebak: Ines eta Joxe M^a Intxausti, Joxe (Aita beneditarra), Patxi (Aita beneditarra), Joxe Mari eta M^a Karmen Irizar, Maria Estensoro eta Pako Etxeberria, Prantxika Estensoro (Xanti Lasaren alarguna) eta Joxe Estensoro (apaiza); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Urteurrenako meza BIHAR, IGANDEA, goizeko HAMAIKETAN. Zeraingo ANDRE MARIA JASOKUNDEAREN parroki elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.

ZERAIN, 2006ko ekainaren 17a



AGENDA ▶

AZOKAK

Tolosa. Sanjoanetako Azoka Berezia eta Azoka Ekologikoa, goiz osoan.

DEIALDIAK

Tolosa. Pako Eguna, 10:30etik 11:30era, esgrima eta 3x3 kale saskibaloia; 10:30etik 12:30era, haurrentzako tailerrak; 11:30ean, hamaiketako; 11:30etik 12:30era, batuka; 12:30etik 13:30era, patinekin itzulia.
Tolosa. Bide Ertzean-ek eta Cottik irailaren 9an zezen-plazan eskainiko duten kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte Servikutban, 943 00 12 00an eta www.kutba.net-en.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Aterpeak. Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailearen 1a arte bisita daiteke, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Yolanda Artolaren margolanak, Fronton kafetegian ikusgai.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

JAIAK

Anoeta. Udalaren egitaraua: 11:00etan, Gorritiren festibala; 12:15ean, buruhandi eta erraldoiak; 15:30ean, Mus Txapelketa; 17:30ean, txokolate jatea; 18:00etan, haur ikuskizuna; 19:00etan, Bakailoa Saltsa Berdean Lehiaketa; 20:30ean, herri afaria Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua bertsolariekin; 23:00etan, Tahuma; 00:30ean, disko festa. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak: 18:00etan, gazteen kalejira; 21:00etan, herri afaria; 23:30ean, dantza emanaldia; 00:00etan, Skamatxin eta beste talde bat.
Ibarra. 16:30ean, Mus Txapelketa; 17:00etan, Marsel magoa; 17:30ean, txokolatada eta tortilada;



Eskolapioak-Shanti Kirolak, Gipuzkoako txapeldun

TOLOSA ▶ Hirukide Eskolapioak-Shanti Kirolak areto futbol taldeak Lurraldekako Gipuzkoako Txapelketa irabazi du. Ligan lehenengo postuan amaitu zuten Tolosakoek, bigarrenari 16 puntu-ko aldea ateraz. 24 partiduko jokatu zituzten, eta 24ak irabazi. Lehendabiziko laurak ligaxka jokatu zuten gero. Hilaren 3an izan zuten finala Elgoi-

barren, Mountain taldearen (Eibar) aurka, eta 3-2 irabazi zuten Tolosakoek, epaileen lana «oso-oso txarra» izan arren. Argazkian, taldekideak, Gipuzkoako Txapelketa irabazi eta gero: Juanma Ordozgoiti (entrenatzailea) eta Javier Lorz, eta Joseba eta Asier (atezainak), Mikel, Nestor, Jon, Iñigo, Imanol, Iñigo eta Guillermo jokalariek. HITZA

18:30ean, Alurr dantza taldea; 19:30ean, bertso poteoa Xabier Silveira, Fredi Paia eta Jokin Urangarekin; 23:00etan, Drindots eta Gas taldeak.

MUSIKA

Tolosa. Abesbatzen Europako Sari Nagusia. 17:00etan, Usabalen.

GUARDIAKI FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
 10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina.

Goiko irrateria (107.0 FM)
 13:00. *Kornera* magazina. Posta elektronikoa: kornera@hotmail.com

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶




ZORIONAK
 Ander Balardi (Tolosa).
 6 urte. Zorionak zure familiarean partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



Tolosako
 ZEZEN-PLAZA

<p>EKAINAK JUNIO 17 ARRATSALDEKO 6 ORETA</p> <p>ZEZENKETA EXTRAORDINARIA - CORRIDA DE TOROS</p> <p>6 ZEZEN TOROS de la Ganadería de "Sancho Esteban"</p> <p>D. ISAIAS Y D. TULIO VAZQUEZ</p> <p>PARA LOS MATADORES:</p> <p>DENIS LORE SANCHEZ VARA IKER JAVIER LARA</p> <p>EKAINAK JUNIO 24 ARRATSALDEKO 6 ORETA</p> <p>E. MANUEL VILLAU</p>	<p>EKAINAK JUNIO 25 ARRATSALDEKO 6 ORETA</p> <p>ZEZENKETA MONUMENTAL - CORRIDA DE TOROS</p> <p>6 ZEZEN TOROS de la Ganadería de "Sancho Esteban"</p> <p>ALCARRUCEN</p> <p>PARA LOS MATADORES:</p> <p>CESAR RINCON JAVIER CONDE SEBASTIAN CASTELLA</p> <p>EKAINAK JUNIO 24 ARRATSALDEKO 6 ORETA</p> <p>ZEZEN-ERREKORTARIEN 2. LEHIAKETA gar egunko espezialista hoberekin</p>
--	--

Jaialdi egunetan Tolosako Zezen Plazan bakarrik salduko dira, 10:00etatik aurrera. Abonoak berritzeke edota berriak egiteko Tolosako Zezen plazan ekainaren 14tik 16ra 11etatik 14etara eta 17etatik 19etara.

ABONOAK SALGAI %10 MERKEAGO

- SARRERAK SALGAI**
- TOLOSA**
 Bar "Asteasuerra" 943 673 186
 Café Bar "Frontón" 943 651 470
 Asador "Orue" 943 651 911
 Bar "Cantábrico" 943 653 987
 Bar "66" 943 671 937
- SAN SEBASTIAN**
 Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara
 Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial
- BAIONA** Office de Turismo
 0033 559 460 146 Place des Basques

Argibideak eta erreserbak:
 943 64 16 66
 659 67 65 70
 10:00-13:00 - 17:00-21:00